

ERREPORTAJEA EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA (ABENDUAK 3)
KIROLA XII. ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XAKE TXAPELKETA

Barren

ASTEKARIA

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A · 2004ko abenduaren 3a/XII. urtea/511. zkia



ARANTZA ARRONA, EIBARKO SAN ANDRES PINTXO LEHIAKETAKO IRABAZLEA

Mokadu txikia, zapore handia

"ON EGIN DAIGULA JANAK ETA GAITZIK EZ EDANAK" (Esaera zaharra)



Azken sarituak

OPARIEN EROSKETAK EGITERAKOAN KONTUTAN IZAN,
AURTEN ERE, 15 €KO GASTUAGATIK
TXARTEL BAT EMANGO ZAIZULA,
ERREGE BEZPERAN EGINGO DEN
URREZKO BI ERLOJUREN ZOZKETARAKO



ROSA VEGAS BELASCO



EUGENIO GONZALEZ LARREA

AURTEN ZU IZAN ZAITEZKE!!!

San Frantzisko, 26 Tel./faxa: 943 74 25 35

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Kotxerako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behe

(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



Izotza

Vänern laku handia olatu eta guzti izoztu da asteon. Hala gertatzen da hotza azkar-azkar datorrenean. Itsaso esaten diote suediarrek ia Euskal Herria bestekoa den lakuari, eta harritu egin nintzen itsasoa izoztu zela esan zidatenean, olatu eta guzti izoztu zela. Aurten ere mugimendu moztuarekin gelditu da lakua kieto.

Are gehiago asaldatu nintzen Suediako laku txikiak ia erabat, ia hondoraino, izozten direla esan zidatenean. Esan zidaten izotzak metroak eta metroak hartzen dituela beherantz eta arrainek bata bestearen gainean pilatu behar izaten dutela sakon-sakonean.

Batzutan, ez omen da gainera arrain guztientzako lekuri egoten eta batzuk hil egiten dira ezinbestean. Bitxia da, izotz azpiko arrainak dira-eta hiltzean azalera irteten ez diren bakarrak. Hantxe gelditzen dira bizien ondoan geldi-geldi, hilda ere denbora eta espazioa betez, eta inor ez da konturatzeko hil direnik, izotz azpiko beste arraintxoak baino ez batzuetan.

Errekak ere izozten dira Suedian, eta diote arrisksuak direla oso erreka izoztuak. Izan ere, azpiko urak joan eta joan jarraitzen du gaina izoztu arren, eta behin baino gehiagotan irentsi omen du errekak haren itxura baketsuarekin fidatu eta gainean oinez ibiltzera ausartu den mozkortiren bat. Hemen, Karlstaden urtero bat edo bi.

Suedian, geldotasun moztuarekin mugitzen da erreka. Aurrera. Hain zuzen, Klarälven ibaiaren ertz batean geunden Sven eta biok eguneko azken eguzki printzak xukatzen arratsaldeko ordu bietan, izotz gainean oinez zebilen ahate bati begira “eta zure herria? Zure herria nolakoa da?” galdetu zidanean.

Laku handiak, txikiak, ibaiak eta itsasoak nahastu zitzaizkidan barruan. “Nire herria...” hasi nintzen, baina erabakitzeke ausardiarik topatu gabe, trago bat eman nion esku arteko ur botilari izoztu baino lehenago.

Uxue Alberdi



Mendia

Aurten ere badira hainbat mendizale gailurretan bizia galdu dutenak. Ezin dut kopuru bat eman baina direnak direla ere, gehiegi dira. Mendiari ordaindu beharreko zorra. Zer pentsatu handia ematen didate heriotza hauek: konfiantza larregi izan ote duten, zorte txarraren ondorioa izan ote den, mendiari ordaindu beharreko zerga ote den...

Hausnarketa guztiek naramate jomuga berera: errespetua galdu diogu mendiari. Urretxuko gazte bat hil da duela gutxi. Ongi prestatutako mutila dudarik gabe. Ustez, aparteko nekealdiak jo, eseri eta izoztuta hil da. Egund gutxiren barruan 2. zortzimilakoa egitetik zetorren. Eta ondorengo egunetako egunkarietan zeresan berbera: esperientzia handiko mendizalea genuen. Kasualitatez ala kausalitatez mendian hildako ia guztiak dira eskarmentu handiko neska-mutilak. Heriotza ezagutu bezain laister entzungo ditugu lagun baten, kideren baten edo eta dagokion mendi-elkartekoren baten hitzak mendian zuen trebetasuna goraiatuz. Gehienetan inork ezer galdetu baino lehenagoko erantzuna, zerbait justifikatu nahian edo. Zertarako balio izan dio, bada, horrenbesteko eskarmentua izateak?

Ez dakit punta-puntan dabilen hainbat mendizale eredu ona ala txarra bat diren. Astelehenean Juanito Oiartzabal-i egindako elkarrizketa batean, pare bat urte gehiagoan goi-mailan ibiltzeko asmoa azaldu zuen. Duela gutxi adinean aurrera dihoala eta jadanik sasoi batekoa ez dela entzun nion. Bere handinahia ikaragarria da. Inurrategi anaiek, behin bederen, bere bizia jarri zuten arriskuan Oiartzabal onik ateratzeko. K2ra egin duen azken espedizioan 9 behatz galdu ditu eta kataluniar batek atera behar izan du menditik gehiegikeria bategatik amore emanda zegoelarik. 2 urteotan, zenbat gehiagok jarri beharko duen bere bizia arriskuan Oiartzabalenaren mesedetan?

Gotzon Arrieta

Kexak5

motZ MotZ.....8

gehigarria13

kiROLak.....28

astekeko notizria

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratu dira eta txandak txandak idazten dute. Kolaboratzaileek aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluralltasuna izaten dutu kontuan. Gaiari dagokionean, beriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratu du.

HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN KONTRAKO MANIFESTUA

Begi onez ikusten dugu Mendaroko Udalak Udaleko berriak herritarrengana hurbiltzeko atera nahi zuen berri papera dagoeneko kalean izatea. Udaleko jarduna herritarrengana hurbiltzeko ahalegina oinarri-oinarizkoa iruditzen zaigu, eta inoiz ez da hau alperrikako lana izango. Herritarrengan udal jardueren inguruko interesa piztea beharrezkoa da, herritarren partehartzea zuzpuru eta sasidemokrazia errepresentatiboetatik demokrazia partehartzaileetara jauzi egiteko. Norbanakoen partehartze zuzenak (alderdi politikoez gaindi) gauzatuko baitu, inoiz gauzatzekotan, "boterea herriarengana datza" hiztegiek dakarten demokraziaren definizio labur bezain ahaztua.

Demokrazia partehartzailea da gure helburua, norbanakoaren kontzientzia politikoa piztea (animalia politikoak ez al gara ba?) eta jendeak politikaz paso ez egitea, horrek agintea diruzale lotsagalduen esku lagatzen duelako eta herritarrek agintearen kontrola galtzen dutelako. Politika agintearen kudeaketa baldin bada, herritar guztion betebeharra da politikaz arduratzea eta lotsagalduek merezi duten lekuan ezartzea: agintariek herritarren kontrolpean behar dute beti. Udal aldezkarri berriaren 0 zenbakian, Ogasuna Sailean, datozen asteotan 2005eko aurrekontuak aztertzeko foroak izango direla iragartzen da. Esandakoa martxan jartzeko aukera paregabea izan daiteke. Ez utzi beste batzuk izan daitezkeen guztion diruarekin zer egin behar den erabakitzen dutenak. Goazen denok foroetara. Gure eritzia entzuna izan dadila. Gure ardura da.

Enetz Ezenarro, Auzolanean herri plataformaren izenean

ORDUTEGI KOMERTZIALEN LIBERALIZAZIOA

Berriz ere, iragarkiek, apaingarriek, kale usainak eta neguko beltza argitzen duten argiek gabonak gainean ditugula gogorazten digute. Eta berriz ere, data hauek gerturatzen diren neurrian urtero legez, ordutegi komertzialen ezbaia mahai gainean jartzen dute agintariek.

Estatu espainiarreko Diputatuen Kongresuak 2004ko azaroaren 3an onartutako lege proiektu batek arautzen du saltokiek urtean 12 igande edo jaiegunetan atek irekitzeko ahalmena. Erabaki hori Autonomi Erkideetako gobernuak aldatzeko ahalmena izango dute, baina beti ere, gutxienez, 8 igande edo jai egunetan eta astean 72 orduz zabalduko direla bermatuz. Orain arte Autonomi Erkidegoko Jaurlaritzak, saltoki handien patronalaren eta sindikatuen artean igande edo jaiegunik ez zabaltzeko akordio tazitua errespetatzen du.

Euskal Herrian, bizi, lan eta erabaki nahi dugulako, "Jaietan Denok Jai" kanpaina jarri dugu abian, "Aquí O" igande edo jaiegun zabalik nahi ditugula adierazteko. Dendak zabaltzeko beharrik ez dago eta interesdun bakarrak saltoki handietako jabeak jarraitzen dute izaten: irabaziak handitzearen nahi horretan eta gizarte eredu kontsumitzaile baten defentsan dihardutelako. Neurri honek, batetik, sektoreari ondorio larriak ekarriko lizkioke: prekarietatea areagotu, lan baldintzak okertu, langileen bizi kalitatea jokoan ipini, harreman pertsonal eta familiarekoak desaguratu etb. Bestetik, saltoki txiki askok, auzo eta herrietako ekonomiaren eragileak, handien lehia jasanezinak eraginda atek ixten bukatuko lukete. Eta gainera, kontsumitzaileok behin baino gehiagotan adierazi dugulako igande eta jai egunetan atek zabaltzeko beharrik ez dagoela.

LAB Zerbitzuak - E.S.O. K6050757D EHNA

Urruzunoren begi ezkutua

Komuneko sekretuak



Begiradak hirugarrenen aurrean atzeman ezinak badira ere, Mirenek maitekiro begiratzen dio. Jendez gainezka dago taberna eta bikotea gustura dago elkarri pega-pega eginda, besteen aurrean lagun onak besterik ez badira ere. Kalimotxoa barraren gainean utzi eta "komunera juteko gogua dakazu?" xuxurlatu dio goxo-goxo Mirenek.

Gogotsu doaz biak komunera. Txingeta segituan itxi eta hasi da muxu festa. Paretaren kontra daude biak, begiak itxita. Hamaika hitz goxo belarrira, hamaika laltzan goxo aurpegiaren zehar. "Ba Miren! Guazen! Bota bonbia!"

Irribarrea ezpainenatik kendu gabe egin dute kuadrilara iritsi arteko bidea. "Ez det ulertzen zegaitxik beti neskak binaka juten zeraten komunera" esan die kuadrilako batek. Konplizitate handiz begiratu du orduan Mirenek Ane, eta biek barre egin dute.

Maitte Uriarte

ASTEKARIA

BARREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
 ☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
 ARGITARATZALEA
 Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Ainhua Andonegi KAZETARIA Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZALEA Jaione Unanue ZUZENTZAILEA Unai Villena KOLABORATZALEAK Esther Gurrutxaga, Jasone Osoro, Ainhua Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T..
 AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.300 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

 KEXAK

◆ Herritar batek esan digunez, **azokaren leku aldaketaren kontrako manifestazio zegoela jakinarazteko, erdaraz bakarrik hitz egin zuten megafoniatik**: “Azken manifestazioa egon zen egunean, auto bat ibili zen megafoniaz ekitaldia iragartzen, eta hitz bakar bat ere ez zuten euskaraz egin. Manifestazioak egitea ondo dago, baina gutxienez bi hizkuntzatan egin beharko lukete”. Honekin batera, beste herritar batek ondorengoa adierazi digu: “Azokaren manifestazioa egon zen egun berean hileta zegoen. Plaza Handian elizara sartzeko jendea zain zegoen bitartean, azokako merkataria sekulako zarata ateratzen egon ziren sirena handi batekin. Hildakoarekiko eta bere senideekiko sekulako errespetu falta iruditu zitzaidan”.



◆ Gizonezko batek azaldu digunez, **Ikastolatik autopista ingururaino doan bidea egoera tamalgarrian dago**: “Sasiak, plastikoak, zaborra, ontziak... denetarik dago bide honetan. Pasiatzeko toki egokia da zirkuito txiki hau, jende asko ibiltzen da bertan, eta ez dute batere zaintzen. Dagokionak mesedez, txukundu dezala ingurune hau”.

?

 GALDERAK

◆ Herritar batek ondorengo galdera luzatu digu: “**Ba al dago Erretxinditik Mintxetara doan bidexka zabaltzeko edo bide berriren bat egiteko asmorik?** Lehen ez zegoen trafikorik ingurune honetan eta ez zen gehiago behar. Baina gaur egun autoen joan-etorri handia izaten da bide honetan Mintxetara, IMHra edo Basarteko etxeetara”. Udaleko Hirigintza Sailera deitu dugu, eta esan digutenez **proiektua onartuta dago, eta eperik esan ez diguten arren, bide berria egingo dutela jakinarazi digute**”.



 TXALOAK


◆ Herritar batek **Errotatxo Elkarte txalotu nahi du, HIESaren inguruko ekitaldiak antolatzeagatik**: “Aurtengoan ere, HIESaren gaineko informazioa emateko asmoarekin ekitaldi desberdinak antolatu dituzte. Gai garrantzitsua da, eta jende askok ahaztuta daukan arren, gaixotasun honen inguruan lan handia dago egiteko oraindik. Jarraitu horrela!”.

Abenduak 3, Euskararen

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu da gaur, abenduak 3, Euskal Herri osoan. Egun hau aitzaki hartuta, euskararen egoerari buruzko hainbat datu kaleratzea pentsatu dugu, bai Euskal Herrikoak, eta baita Elgoibarkoak ere. Euskararen ezagutza eta erabilera datuak bildu ditugu, eta honekin batera, gure herriko arlo desberdinetako jendearekin hitz egin dugu, euskararen egoera zein den ezagutzeko asmoz.

1. EUSKARA GAITASUNA EUSKAL HERRIAN



2. EUSKARAREN EZAGUTZA ELGOIBARREN

EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) argitaratutako datuen arabera, eta beti ere, bi urtetik gorako biztanleak kontuan izanik, %60,9 euskaldunak dira Elgoibarren, %12,86 ia euskaldunak eta %26,21 erdaldunak. Datu hauek 2001. urteko erroldatik ateratakoak dira, hau da, 10.615 biztanle.

ELGOIBAR	Pertsonak	%
Euskaldunak	6.225	60,9
ia euskaldunak	1.315	12,86
Erdaldunak	2.679	26,21
GUZTIRA	10.219	

1. ZURETZAT ZER DA EUSKARA? 2. ZURE BUELTAN, BA AL DAUKAZUE EUSKARAZ BERBA EGITEKO OHITURAK?

MAITE FRANCO
Dendaria



1. Euskara, hitz egitea gustatuko litzaidakeen hizkuntza bat da. Behin baino gehiagotan saiatu naiz ikasten, baina ezin izan dut. Dena ulertzen dut, baina ez naiz hitz egiteko gai. Hala ere, euskalduna naiz, eta euskalduna sentitzen naiz. Jubilatzen naizenean, euskara ikasteko asmoa daukat.

2. Bai, familiako bazkariak dauzkagunean, nire guraso eta anaiek euskaraz hitz egiten dute. Nire inguruan euskara asko erabiltzen da. Gu umeak ginenean, ez zen euskaraz hitz egiten. Lagun artean dena erdaraz egiten genuen. Dendan, bestalde, haurrek egiten dute euskaraz, eta beraiei nik ere euskaraz hitz egiten diet. Gaintontzean, gaztelania asko entzuten da. Euskaraz dakien jende askok, gaztelerez hitz egiten du, eta hori penagarria da.

3. Euskararen etorkizuna ondo ikusten dut, poliki-poliki indartzen joango dela iruditzen zait. Gaur egungo umeek denek dakite euskaraz, beraz, etorkizuna ziurtatuta dauka euskarak. Gainera ohiturak asko aldatu dira, azokak egiten dira, eta jendeak euskararen alde lan handia egiten du.

JOSEBA KONDE
Enpresa gizona



1. Nire nortasunaren zati handi bat da euskara. Zenbait emozio eta oroimen euskaraz bakarrik sentitu eta kontatu ditzaket. Gainera, gure hizkuntza nazionala da eta elebakartasunaren aldekoa naiz.

2. Lanean; azaleko gaietan eta hizkuntza informalean, euskaraz berba egitea zabaldutako ohitura da. Gai jantziagoetan, berriz, erdara da nagusi, zoritxarrez.

Nire bizitzako alor gehienetan euskara da nagusi, baina ez nik nahiko nukeen beste.

Kalean, adibidez, nahi baino gutxiago entzuten da euskara. Ez gara konturatzen nolako altxorra daukagun esku artean.

3. Euskararen etorkizuna arriskuan dago eta baikortasunean ez erortzea komeni da.

Ez da gauza bera euskaraz jakitea eta berba egitea. Erabilera bultzatu behar da eta euskara lan munduan zabaltzeko ere lan handia dago egiteko.

Nazioarteko Eguna

3. EUSKARAREN ERABILERA ELGOIBARREN

Elgoibarko Udalaren Euskara Batzordeak eginiko kale neurketaren arabera, elgoibartarren %41,4ak hitz egiten du euskaraz gure herriko kaleetan. Azterketa hau egin ahal izateko 6.392 elgoibartarren hizkuntza joera neurtu zuten, eta 2.652 lagunek egiten zuten euskaraz.

Elgoibartarren euskararen erabilera orokorrak 1994tik 1998ra gorantz egin zuen pixkanaka, baina 1998tik 2001era beherakada txiki bat jasan zuen. Hala ere, 2001etik 2002 igoera nabarmena izan zuen. 2002ko emaitza izan da azken hamar urteotako hoberena. Ordutik gaur egunera, erabilera orokorrari dagozkion portzentajeak jaisten joan dira.

	2000	2001	2002	2003	2004
Haurrak	%66,7	%63	%70,9	%63,5	%63,6
Gazteak	%37,6	%40	%44,6	%43	%41
Helduak	%27,6	%25,7	%32,9	%35,1	%30,6
Adinekoak	%33,2	%33,2	%40,8	%41,1	%40,8
GUZTIRA	%38,3	%37,4	%45,5	%44,7	%41,4



IMANOL
LARRAÑAGA

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte
dinamizatzailea

KONTZIENTZIAK PIZTEKO EGUNA?

Ez zaizkit nazioarteko egunak gustatzen. Orain arteko kalendarioetan, santu eta santa izenak izaten ziren nagusi, baina, martxa honetan, nazioarteko egunak santuen parera igo behar zaizkigu. Egun bateko beroaldiak begitantzen zaizkit; azala berotu bai, baina barruan eragiten ez duten beroaldiak.

Baina, gustatu ala ez, abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna izendatu dute. Eta, Diputaziotik bidali diguten idatzi batean, "egun hau ospatzera" gonbidatu gaituzte. Ez naiz ni izango ospatzeko arrazoirik ez dagoela esango duena. 2.000 urtetik gora darara bizirik euskarak, eta hau nahikoa motibo da gaur gauean ardo botila on bat zabaltzeko. Baina, pozik egoteko beste motibo daukagu arduratuta egoteko. Bai euskaldunok eta baita beste hamaika nazio linguistikok ere. Izan ere, munduko hizkuntzen % 90 desagertzeko arriskuan dago. Hizkuntzen aldeko mundu mailako hizkuntz politika orekatua eta eraginkorra martxan jartzen ez den bitartean, munduan gutxi gorabehera dauden 6.700 hizkuntzetatik, % 10ak baino ez du etorkizuna ziurtatuta izango. Europan dauden 225 hizkuntzetatik, adibidez, 94 galtzeko arriskuan daude. Eta, gustatu ala ez, euskara desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen zerrendan azaltzen da. Lehen ere 30.000 hizkuntza inguru galdu dira historian zehar, eta, adituek diotenez, bizirik dauden hizkuntzen artetik, erdiak desagertu egingo dira XXI. mendean.

Nazioarteko egunak kontzientziak pizteko direla entzun dut baten baino gehiagotan. Hala bada, izan dadila gaurkoa hizkuntz ekologiaren aldeko kontzientziak pizteko. Hizkuntza bat desagertzen den bakoitzean, denok galtzen dugula konturatzeko. Hizkuntz pluraltasuna eta aniztasuna, gizadiak duen aberastasun bat dela aldarrikatzeko.

RIK? 3. ZEIN ETORKIZUN IKUSTEN DIOZU EUSKARARI?

LURDES ODRIUZOLA

Dantza irakaslea eta
Haritz EDT-ko kidea



1. Nire ama hizkuntza. Ni eta euskara beti bat izan gara, ez da nire aparteko gauza bat izan, beti moldatu bainaiz euskaraz, bai dantzan, bai irakasten, e.a.

2. Jendeak euskaraz egiten duenean, jende horri euskaraz egiten diola ondokoak konturatu naiz. Niri behintzat, denek egiten didate euskaraz, baita erdipurdi egiten dutenek ere. Egia esan oso gaizki konpontzen naiz erdaraz eta nire inguruko ia guztiek euskaraz egiten didate.

3. Beltza ikusten dot, baina aldi berean gure eskutan dago euskararen etorkizuna. Hemendik urte batzutura ez dot ikusten gaztelerak daukan indarrarekin. Gaztelerak, globalizazioak, internetek, e.a. indar handia dute euskararekiko. Horregatik, altxor hau mantentzeko oztupoak ere handiagoak dira.

Gure esku dago daukagunari eustea eta altxor handi hau mantentzea. Lorpen bat litzateke euskarak orain duen garrantzia mantentzea, eta garrantzi hori guk eman behar diogu, horixe da gure lana.

ALAZNE REMENTERIA Irakaslea



1. Ama hizkuntza. Berarekin jaio eta hezi nintzen, eta berarekin bizi eta lan egiten dot.

2. Bai etxekoekin eta lagunekin orokorrean euskaraz egiten dot. Lanean ere gehienetan euskaraz egiten dot ikasleriaren gehiengoa euskalduna baita. Nire bueltan, orokorrean, euskara asko entzuten da. Agian lankideen artean izango da sumatzen dudana hutsunerik handiena.

3. 3. Guk denok eskaini nahi dioguna. Hein handi batetan gure esku dago euskararen etorkizuna, beraz...

Udal Plenoak aho batez onartu zuen EAJk emakumeenganako tratu txarren kontra aurkeztutako mozioa

Einbiouko kideek ostegunetako azokaren arazoa konpontzeko eskatu zuten

Azaroaren 25ean Emakumeenganako Tratu Txarren Kontrako Eguna ospatu zenez, EAJk egoera hori salatzeko mozioa aurkeztu zuen Udal Plenoan, eta alderdi guztiek aldeko botoa eman zuten. Arazo honen aurrean Udalaren inplikazioa oso garrantzitsua dela adierazten du mozioak: “Udal administrazioak oinarrizko papera du, bai emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen, bai biktimei laguntzen eta arreta egiten. Izan ere, udalerria da indarkeria hau gauzatzen den eremu fisikoa. Gainera, bere antolakuntzari esker, Udala da gizarte arazo honetatik eta zerikusia duten pertsonetatik hurbilen dagoen instituzio publikoa”. Udalak emakumeen berdintasunaren alde eta eurenganako indarkeriaren kontra lan egiteko konpromisoa hartu zuen.

Taxien tarifa berriak

2005erako herri barruko garraiorako auto-taxien tarifa berriak onartu zituen Udal Plenoak. Hauek dira tarifa berriak: Egunez, astean zehar 3,816 euro izango da bandera jaitsiera, eta 0,9556 euro/orduko kobratuko da kilometroa. Gauzez edo jai



egunetan, bandera jaitsiera 4,1552 euro izango da, eta kilometroa 1,0576 euro kobratuko da. Itxaron ordua egunez 12,7730 euro izango da, eta gauzez edo jai egunetan 13,4302 euro.


Einbiou

Plenoa bukatu zenean, Einbiouko Iñaki Odriozolak hartu zuen hitza, eta herriaren hitza errespetatzeko eskatu zuen: “Einbiouk ia 1000 bozka lortu zituen Elgoibarren, Udaleko bigarren indarra, eta ordezkariarik gabe geratu da”. Honekin

batera, gatazka politiko guztien konponbidearen gakoa herriari hitza ematea eta herriak adierazten duena errespetatzean oinarritzen dela adierazi zuen.

Bestalde, azokaren leku aldaketa salatuz Udal Plenora joan ziren herritarrentzako hitzak eskaini zituen Iñaki Odriozolak: “Ezin dugu ispilu bat aurrean izango bagenu bezala hitz egin. Herritar hauek, eta azokako merkatariek soluzio bat nahi dute, eta hori bilatzea Udalaren lana da”.

IMHko "fresatzeko makinaren mekanizatua" ikastaroa saritu dute



IMHk hirugarren saria jaso du Hezkuntza eta Zientzietako Ministerioak (CNICEk) antolatzen duen 2004. urteko edizioako multimedia irakaskuntza materialen lehiaketan. Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuak garatzen duen on-line bidezko prestakuntza teknikoak bigarren aldiz lortu du Hezkuntza eta Zientzietako Ministerioak etekinik lortzeko helbururik ez duten erakundeek sortutako irakaskuntza material multimedia berritzaileei ematen dien saria.

IMHko on-line ikastaro teknikoak guztiz didaktikoak dira. Honela, arin eta zuzen IMHko web orrian sartuz, ikasleak simulatzaileekin egin ditzake ariketak eta ikastaroa bere gain dagoen tutore baten laguntzarekin jarraitu. Edukiak IMHko irakasleek landu dituzte, lanbide heziketa iraunkorreko ikastaroetan lortutako esperientzian oinarrituz.

Seropositiboen erregistroaren kontrako manifestua irakurri zuten Errotatxoko kideek HIESaz hildakoen aldeko omenaldian



Errotatxo Elkarteak antolatuta, HIESaren inguruko ekitaldi desberdinak izan dira aste honetan. Horien artean garrantzitsuenak, azaroaren 28an egin zen HIESaz hildakoen aldeko omenaldia izan zen. Herritar dezente hurbildu zen Plaza Handira. Haritz dantza taldeko kide batek aureskua dantzatu zuen, ondoren txalaparta emanaldia izan zen, eta 10 minutuko kontzentrazio isilarekin bukatu zen omenaldia. Ekitaldi honetan, Maider Gastesi Errotatxoko kideak, seropositiboaren erregistroaren kontrako manifestua irakurri zuen. Beraien ustetan, seropositiboaren intimitatea urratzen du erregistro honek. Azkenik, abenduaren 1ean HIESaren Nazioarteko Egunean, mahai informatiboak jarri zituzten eta iluntzean kontzentrazioa egin zuten Plaza Handian.

40 lagun inguruk egin zuten EHNA

Euskal Herriko Naziotasun Aitorpena (EHNA) egiteko mahaiak jarri zituzten Plaza Handian joan zen larunbatean, azaroaren 27an. Antolatzaileek esan digutenez, bi orduan 40 lagun inguruk egin zuten EHNA: "Ez genuen uste, baina jende mordo hurbildu da gaur ere EHNA egitera". Badirudi oraindik ere, herritar asko dagoela EHNA egin nahian, beraz, joan zen larunbateko emaitza ikusirik, Gabonak iritsi baino lehen beriz jarriko dituzte EHNA ateratzeko mahaiak.



Aurten urrezko ezteiak bete dituzten 6 bikote omendu zituzten jubilatuen astean



Jubilatuen asteko ospakizun bereziena, joan zen ostegunean, hilaren 25ean, ospatu zen. Aurten urrezko ezteiak bete dituzten 6 bikote omendu zituzten. Honakoak dira omendutako senar-emazteak: Paulo Etxaniz eta Pilar Etxeberria, Juan Iparragirre eta Sabina Sopolana, Imanol Konde eta Josefa Astigarraga, Joxe Elizondo eta Maria Purificación Gonzalez, Ricardo Manuel Tobajas eta Francisca Ramos, eta Marcelo Ladrón eta Consuelo Ines Garcia.

Inazio Iriondoren espetxeratzearen 20. urteurreneko ekitaldiak

Inazio Iriondo euskal preso politiko elgoibartarrak 20 urte bete zituen kartzelan joan zen larunbatean, azaroaren 27an. Hori dela-eta, ekitaldi desberdinak izan dira asteburuan zehar: "La guerrilla de la memoria", dokumentala eskaini zuten Herriko Antzokian, ostiral iluntzean kartelada egin zuten Plaza Handian, eta gauean Iñaki Labakaren kantaldia izan zen. Zapatu eguerdian Inazioren askatasuna aldarrikatuz manifestazioa izan zen, eta eguerdian bazkaria bertsoariekin Kimetz Elkartearen.



Itxaropena abesbatzak eskerrak eman nahi ditu

Elgoibarko Itxaropena abesbatzak eskerrak eman nahi dizkie azken deialdiari erantzunez koruan sartu diren partaide berriei. Aipatzekoa da, sartu direnen artean badirela bai Mendarotar eta baita Eibartar bat ere. Beraz, egungo egoera zertxobait hobetu da 6 partaide berri hauekin. Hala ere, ez da iristen koruak behar duen jende kopuru egokira, eta abesbatzaren etorkizuna oraindik kolokan dago. Nahiz eta egoera larria izan, aurrera jarraitzea erabaki du abesbatzak, helburua kide berri gehiago lortzea izanik. Beraz, abeslari berriak bilatzeko planarekin aurrera jarraituko du. Orain arteko esfortzu honek bere fruituak izan dituzenez, aurrerantzean egoerak hobera egingo duenaren itxaropena du. Hala ere, urteroko Gabon Kontzertua aurten ezin izango dute eskaini. Interesatuak ondorengo telefonoetara dei dezakete: Ane: 943 74 13 39/ Aitor: 635 75 67 57

Abenduko egun guztietan jarriko ditu Ertzaintzak alkoholemia kontrolak euskal errepideetan ZER IRITZI DAUKAZU ALKOHOLEMIA KONTROLEN GAINEAN?



MARISOL AGUADO

42 urte, erizain laguntzailea

Jendeak abenduan bakarrik edaten du ala? Ez dut uste momentu konkretu batean bakarrik egin behar direnik kontrolak. Ez dira istripuak gutxituko, baina kontrol apur bat jarri egin behar da, eta garraio publikoa indartu.

ARKAITZ URANGA

27 urte, igogailu muntatzailea

Gehiegizkoa iruditzen zait, astean zehar ez da beharrezkoa. Alkoholemia kontrolek ez dute jendearengan eragin handirik izango. Koadrila batzutan txandaka edaten dute autoa gidatzeko. Bakoitzak ikusiko du.



MIKEL IBARRA

32 urte, garraiolaria

Alkoholemia kontrolak jarritz, jendeak gutxiago edango duela uste dut, kontu handiagoz hartuko du autoa. Ez dakit istripuak gutxituko diren, baina jendea apur bat beldurtzeko balioko du.

IÑIGO ARBONIES

32 urte, ingeniaria

Edan ez baduzu ondo, baina harrapatzen bazaituzte zeharo izorratzen zaituzte. Astean zehar ez da beharrezkoa, baina asteburuetan bai. Kontrolak daudela jakinda, jendeak gutxiago erabiliko du autoa.



JOSEFINA AIZPITARTE

55 urte, etxeoandrea

Oso ondo iruditzen zait, urte guztian zehar egin beharko lituzkete. Nik dagoeneko ez dut gidatzen, oso urduri jartzen naiz. Gazteek edozein tokitan aurreratzen dute, gainontzekoen bizitza arriskuan jarritz.

IRATXE BARRUTIA

22 urte, ikaslea

Gehiegizkoa da, astean zehar ez da inor edanda ibiltzen. Asteburuetan zerbait egin behar da. Jendeak garraio publikoa gehiago erabili beharko luke, eta autoa etxean laga.



ALBERDI		
ERREKADISTA		☎ 609 264 705
ELGOIBAR - DONOSTIA (enpresa eta partikularrentzako)		
BILKETAK		
• Paketeak	• Gestoria	
• Sobreak	• Komertzioa	
GESTIOAK		
• Ogasuna	• Trafikoa	• Merkataritzako erregistroa
• Diputazioa	• Merkataritzako - ganbera	

	<ul style="list-style-type: none"> ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA ★ MULTIKOPISTAK ★ FOTOKOPIADORAK ★ PLANOEN BIRREGILEAK ★ ERLOJU INDUSTRIALAK ★ MARRAZKETA MATERIALA ★ INFORMATIKA ★ FAX
MEKANOSA Errosario, 30 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar	

BERTSO

SAIOA

A
B
E
N
D
U
A
K



ELGOIBAR

Andoni Egaña

Igor Elortza

Maialen Lujanbio

Ametz Arzallus

Aurkezlea:

Uxue Alberdi

H
E
R
R
I
K
O

A
N
T
Z
O
K
I
A

23

EGUENA

22:30



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



Elgoibarko
Udala

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz **barren@topagunea.com** helbide elektronikora.

HILDAKOAK

Floreano Mosquera Outomuro,
93 urte, azaroak 1

Eutiquiano Martin,
91 urte, azaroak 1

Ines Garamendi,
81 urte, azaroak 1

Manuel Muguruza Ugarteburu,
60 urte, azaroak 3

Maria Pilar Seara Prieto,
67 urte, azaroak 13

Carlos Conde,
43 urte, azaroak 14

Juliana Urain Arakistain,
51 urte, azaroak 16

Juan Arrieta Usabel,
81 urte, azaroak 18

Vidal Valle Monroy,
66 urte, azaroak 21

Jose Manuel Gurrutxaga,
84 urte, azaroak 24

EZKONTZAK

Javier Ramirez eta Yolanda Avila
(azaroak 6)

Oscar Astigarraga eta Norma-Constanza Prada
(azaroak 20)

JAIOTAKOAK



Ibai Arandia
Arenas,
urriak 30,
Nerea eta Eduardo



Unai Oñederra
Aramberri,
azaroak 4,
Ana eta Joseba



Izaro Bastida Saiz,
azaroak 23,
Ana eta Xabier

Ane Arregi Beitia,
azaroak 8,
Bikentzi eta Miren

Irati
Arantzamendi
Solozabal,
azaroak 19,
Mikel eta Maite

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK ·
TRASLADOAK
·KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.**

**Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

TXANKAKUA txartela, abenduan jasoko duzu zure etxean



Hauek dira
TXANKAKUA Txartelak
emango dizkizun
abantailetako batzuk

**Ordaindu zure erosketa hiru hileko epean,
interesik gabe.**

Txartelarekin eroso ordaindu ahal izango duzu, baita hiru hileko epean ere, gainkosturik gabe. Eta nahi baduzu epe gehiagotan lehentasunezko interesez.

Dohainik emango dizugu.

Txartela erabat dohain eskuratu ahal izango duzu, nahiz Elgoibarko Merkatarien Elkarteko saltokietan, nahiz "Caja Rural de Navarra"ko bulegoan.

Zuk hautaturiko bankuan helbideratua.

Are errazagoa izan dakizun, TXANKAKUA Txartelaren ordainketak helbideratuko dizkizugu, zuk nahi duzun entitatean, bankuz aldatu beharrik ez duzu izango.

Laguntzailea:



CAJA RURAL
DE NAVARRA

Ferpi Modak



San Bartolome, 38
Tel.: 943 74 08 15



Emakumeentzako moda



GARATE

Jantzi - Denda

San Bartolome, 13
Tel.: 943 74 11 29

ELGOIBAR

Erribera, 3
Tel.: 943 86 09 96
ZUMAIA



Larunbat arratsaldetan ere irekita

ZONE

NOUGAT
LONDON

Papa Joana
LONDON

LIBERTO

SWEATER HOUSE
BCN

FREE SOUL
italia

HUGO BOSS

SIXTY

Diab'less

COMPANY & CO

SCOTCH & SODA

NOON



skunkfunk

San Frantzisko, 13 • Tel.: 943 74 46 66

Arrieta

San Bartolome, 18
Tel.: 943 74 08 49

Reebok trango**world** QUIKSILVER adidas

CASA ASTIGARRAGA

PRIVATA GYS SPORT Grifone

NIKE PUMA SALOMON

Errosario, 16-18 **35 urte**
Tel.: 943 74 32 68 kirolariak jazten!

CASA ASTIGARRAGA

OUT LESS

GYS SPORT

Kirol jantziak prezio onenean!

Neskentzako anoraka Parka 3/4 **60€**

Txandalak emakume/gizon/ume Marka guztiak **30€**

Zapatilak ADIDAS junior (adiprenezkoa) **30€**

Motxilak ADIDAS **15€**

Zapatilak ADIDAS Running (Adiprenezkoa) **15€**

Polarra Wind-stopper Mega-tex **60€**

Forro polarra emakume, gizon eta ume **30€**

Anorak Membrana XRS impermeablea Aislante termiko Thinsulate **30€**

Jausoro Plaza • Tel.: 943 74 43 86



Luvik

oinetakoak

San Bartolome, 28 ■ Tel.: 943 74 43 45





STUDIOPALOMA



24 HRS



AEROSOLE



ANGEL INFANTES



Dansi



ZORIONAK

Z A P A T A D E N D A

San Frantzisko, 34 - Tel.943 740 235

- PIKOLINOS -
- CAMPER -
- NATURE -
- HOMERS -
- PACO HERRERO -
- CLARKS -
- HISPANITAS -
- PANAMA JACK -

Zorionak eta urte berri on!





karkizano

San Frantzisko, 14
Tel.: 943 74 05 49





IRIONDO
KIROLAK
Marka onenak!

San Frantzisko, 37 - Tel.: 943 74 09 56

Mendi eta kalerako moda



JULENE

Zorionak eta urte berri on!

San Frantzisko, 43
Tel.: 943 74 42 53



gofi

Ume eta gazteentzako jantzidenda

Giza Eskubideen plaza, 1 • Tel.: 943 74 46 53



URDAITEGIA - JANARIDENDA
DORI



- Produktu iberikoak
- Hestebeteak
- Urdaiazpikoak
- Kontserbak
- Gaztak / Pateak



Errosario kalea, 29 · Tel.: 943 74 11 92

EIZAGUIRE

OKINDEGIA

LANTEGI PROPIOA

Espezialistak artisau ogietan,
txapata ogietan, opiletan...

"Betiko ogia"



San Frantzisko kalea, 22 behea - Tel. 943 74 04 88



Kamara digitalak eta analogikoak

Zure argazki
analogiko edo digitalak,
editatu eta
sonorizatuak
DVDra
pasatzen ditugu.

ostarku
ARGAZKIAK

943740656 - ostarku@orpnadoo.es

Ordubeteko errebelatua

Sara



Narruzko kazadorak
139,90 €

Panazko prakak
(kolore guztietan)
34,95 €

azkue DIGITAL GUZTIAK
ARGAZKIAK

Telefono mugikorarentzako inpresora portatila



CÁMARA DIGITAL *FinePix*

FUJIFILM

San Bartolome, 29 • Tel.: 943 74 08 48



SKANDAL ♀

San Bartolome, 9 • Tel.: 943 74 35 95



Garbiñe estetika

ZORIONAK eta URTE BERRI ON!

Presta zaitez gabonetarako.
Oparitu zure buruari
edertasun tratmendu bat.

AURPEGIKO TRATAMENDUAK
GORPUTZEKO TRATAMENDUAK
DEPILAZIOAK
SOLARIUMA



P.M. Urruzuno, 27 - Tel.: 943 74 31 32



GOIARA

Lurrindenda



San Bartolome, 23
Tel.: 943 74 11 33

ZELETA BARAZKIAK

NEKAZARITZA TRADIZIONALA eta BABESTUA

- Landareen produkzioa ▪ Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa ▪ Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu



ZELETA BASERRIA
San Migel auzoa ELGOIBAR
Tef.: 609 35 76 19

HARATEGIA
Landa
URDAITEGIA

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 74 27 58

San Bartolome, 34-35 • Tel. 943 74 03 45

Muruamendiarrak gozotegiak
*Gabon jai gozo-gozoak
opa dizkizue herritar guztioi.*

*Turroi eta
mazapanetan
aukera zabala*

IDARRAGA
KAFEAK

San Frantzisko, 17 • Tel.: 943 74 05 33

Kala
loradenda

San Frantzisko, 24 Tel.: 943 74 45 16

Erregeetako zubian Andorrara eskiatzera
5 gau + 5 egunetarako forfaita
Ostatua eta gosaria
217 €-tik hasita

 **Andorra**
EL PAIS BELLE PYRINEUS

Viajes Bilbao Express
Bilbao Express Bidaiak

Foruen Enparantza, 3
TEL.: 943 74 39 12 - FAXA: 943 74 44 24
E-MAILA: e1@viajesbilbaoexpress.com
www.viajesbilbaoexpress.com

Triondo
ALTZARIAK

Santa Ana 4 eta 6
Tel.: 943 74 12 34

AUKERA PAREGABEA! Sofak prezio berezian.



MULTIOPTICAS
UZURI

GABONETAKO OPARIAK:

- Eguzkitako betaurrekoak
- Pauso kontagailuak
- Teleskopioak
- Mikroskopiaok
- Prismatikoak
- Barometroak
- Lupak

San Frantzisko, 21 **ELGOIBAR** • Tel.: 943 74 03 59

Ostolaza, 7 **DEBA** • Tel.: 943 19 21 92



GORRONDO
dekorazioa

San Bartolome, 21
Tel.: 943 74 01 91



San Bartolome, 10
Tel.: 943 74 37 34
ELGOIBAR

Dior

Ikus Optika

Jose Arletxe, 10
Tel.: 943 15 75 74
AZPEITIA

Dior

LA BODEGA ERRETEGIA

ETXEKO BEREZITASUNAK
Olagarroa - Haragi errea - Kazuelatxoak

EGUNEKO MENUAK
ematen ditugu



Pedro Muguruza, 22 · Tel. 943 742 500



Pintxoak • Bokadiloak • Gosariak • Postreak

PLATER KONBINATUetan aukera zabala

Pedro Muguruza, 5
Tel. 943 74 08 06

GOROSTIZA

liburudenda

Opariak
Fotokopiak

Jostailuak
Eskolako materiala



Errosario kalea, 16 · Tel.: 943 74 03 88



Farmazia - okindegia

EGUNEZ	GAUEZ
3 Yudego	Yudego
4 Bidasolo	Zabaleta
5 Zabaleta	Zabaleta
6 Ibañez	Ibañez
7 Ibañez	Ibañez
8 Bidasolo	Bidasolo
9 Etxeberria	Etxeberria
(Santa Ana kalean)	
10 Fernandez	Fernandez
11 Yudego	Yudego
12 Yudego	Yudego
13 Zabaleta	Zabaleta
14 Etxeberria	Etxeberria
(Errosario kalean)	
15 Ibañez	Ibañez
16 Bidasolo	Bidasolo
17 Etxeberria	Etxeberria
(Santa Ana kalean)	
18 Etxeberria	Fernandez
(Errosario kalean)	
19 Fernandez	Fernandez
20 Yudego	Yudego
21 Zabaleta	Zabaleta
22 Etxeberria	Etxeberria
(Errosario kalean)	
23 Fernandez	Fernandez
24 Ibañez	Ibañez

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko enparantza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

5 igandea Eizagirre

6 astelehena Foter

8 eguaztena Ibarrenea

12 igandea Idarraga

19 igandea Doña Mercedes

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emailak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbidea	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua	
Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73
El Correo Español	943 74 10 82
Zazpiki irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

EuskoTren

DONOSTIA-BILBO

Egunero

Donostia AMARA 5.45 06.45... 20.45

Elgoibar 07.02 08.02... 22.02

* jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR

Egunero

Mendaro 07.50 08.50... 21.50

EuskoTren

AUTOBUSAK

BILBO-DONOSTIA

Egunero

Bilbo 06:00 7:00... 20:00

Elgoibar 07.23 08.23... 21.23

* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan

Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jaiegunetan

Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

ELGOIBAR

SIGMA ● ———— ● ARRIAGA

SIGMA - ARRIAGA

8:00	8:10
9:25	9:35
11:10	11:40
11:20	11:50
12:10	12:40
12:20	12:30
13:10	13:20
13:20	13:30
18:20	18:30
19:10	19:20

ARRIAGA - SIGMA

8:10	8:20
9:55	10:05
11:10	11:20
11:40	11:50
12:10	12:20
12:40	12:50
13:10	13:20
18:10	18:20
19:00	19:10

Arantza Arrona
SUKALDARIA

"Zapore gozo eta gazien arteko nahasketa izan da klabea"

Ballibar baserriko Arantza Arrona sukaldari elgoibartarrak, Eibarko Arrate Kultur Elkarteak San Andres jaietarako antolatutako duen pintxo lehiaketa irabazi du. 21 pintxoren artean, Arantzak eginiko "Mestizaje" pintxoaren saritu zuen epaimahaiak. Eibarko Koskor tabernan egiten du lan Arantzak, eta esan digunez, Gabonak pasatu arte, "Mestizaje" pintxoaren beraien eskaintzan sartu dute. Gaurkoan, 25 urteko sukaldari gazte honekin hitz egin dugu, eta "Mestizaje" pintxoaren sekretuak kontatu dizkigu.



■ Zergatik jarri diozu "Mestizaje" izena?

Tabernako nagusiarekin batera erabaki nuen izen hori. Pintxoak zapore nahasketa asko eta osagarri desberdin ugari dituztenak, izena ondo zetorkiola pentsatu genuen.

■ Zein osagarri erabili dituzu pintxo egiteko?

Ahuntz gazta, tomate mermelada, datilak, fruta, andere-mahatsa, tipulina, errefautxoak eta intxaurreak.

■ Ohikoak ez diren osagaiak nahastu dituzu, ba al zenekien emaitza ona izango zuenik?

Bai, pintxo gazi gozoa egin nahi nuen. Zapore horien nahasketa asko gustatzen zaio jendeari.

■ Honelako pintxo berritzaileak jateko, ausarta izan behar al da?

Bai, apur bat. Jateko tradizionalen aldekoa denak, ez du pintxo hau probatuko. Garrantzitsuenak gazta gustatzea da. Ahuntz gaztak zapore oso gogorra dauka, eta gustatzen ez zaionari, ziur ez zaiola "Mestizaje" pintxoaren gustatuko.

■ Zein da "Mestizaje" pintxoaren berezitasunik nagusia?

Zapore gozo eta gazien arteko

nahasketa izan da klabea. Ahuntz gazta eta tomate mermeladaren arteko nahasketak emaitza oso ona ematen du.

■ Aurrez pentsatuta al zeneukan, edo bat-batean bururatu zitzaizun?

Imaginazioa eta ideia berriak nahastuz, eta osagaiekin jolastuz pintxo desberdinak egin nituen. Probatu ostean, hauxe izan zen gehien gustatu zitzaiguna, eta lehiaketara bera aurkeztea erabaki genuen.

"Imaginazioa eta ideia berriak nahastuz egin nuen pintxo."

■ Horrelako lehiaketaren batean parte hartzen zenuen lehen aldian izan al da?

Bai. Nagusiak animatu ninduelako hartu nuen parte. Emaitza ikusirik, datorren urtean berriz ere animatuko naiz. Honelako saria lortzeak ilusioa ematen du.

■ Noiztik zara sukaldaria?

16 urte nituela hasi nintzen sukaldari moduan lanean. Toki desberdinetan ibili izan naiz, eta azken hiru urteak Eibarko Koskor tabernan daramatzat.

■ Taberna bateko barra pintxorik gabe, lorategi bat lorarik gabe modukoa al da?

Bai, nire ustez taberna bateko barran pintxoak egon behar dira, bestela oso tristea da. Jendeak oso gustura jaten ditu pintxoak.

■ Zure gustuko pintxo bat?

Ni oso tradizionala naiz pintxoak jateko orduan. Patata tortilla txakarekin gustatzen zait gehien.

■ Zein da hobekien egiten duzun pintxo?

Patata tortilla, eta kroketak ateratzen zaizkit oso ondo. Olagarroa txakarekin edo piper beteak ere oso gustura jaten dituzte tabernako bezeroek eta baita nire inguruko lagunek ere.

■ Bazkaltzeko astirik ez daukan bati, zein pintxo gomendatuko zenizkioke bazkaltzeko?

Patata tortilla, gosea kentzeko bera da onena.

■ Ez al duzu uste karpitxo garestia dela pintxo?

Ez, edonork erosi dezake pintxo bat. 1,20 euro balio ditu pintxo batek, nire ustez ez dira garestiak.

Jaiotza mekanikoaren 25. urteurrena ospatzeko erakusketa eta liburuaren aurkezpena

Abenduaren 20an inauguratuko da jaiotza liburuaren aurkezpena egin ostean



Elgojaiotza, Elgoibarko Jaiotza Mekanikoaren Elkarateak hainbat ekintza antolatu ditu aurtien jaiotzaren 25. urteurrena ospatzeko. Lehena abenduaren 17tik urtarrilaren 6ra bitartean Kultur Etxean ikusgai izango den erakusketa da. 1980. urtetik gaurdaino egin diren jaiotza mekanikoen argazkiak, aurtengo jaiotza nola egin den adierazten duen argazki sorta eta lehen garaietako mugimendudun irudiak eta mekanismoak ikusi ahal izango dira, besteak beste, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Kultur

Etxeko ganbaran, berriz, 1998. urteko jaiotza mekanikoa egongo da ikusgai jendearen gozamenerako. Haritz Euskal Dantzari Taldearen 25. urteurrena aitzakiatzat hartuz Elgoibarko herrian kokatu zuten urte hartako jaiotza eta herriko eraikin ezagun asko kokatu zituzten bertan. Bestalde, abenduaren 20an, astelehenean, 25. urteurrenaren inguruan idatzitako liburua aurkeztuko da Udaleko Pleno Aretoan 20:00etan. Ondoren, jaiotzaren inaugurazio ekitaldia egingo da Parrokiako kaperan.

"Nire anaiaren kotxeko argiak" diskoa aurkeztuko du Txuma Murugarrenek abenduaren 17an, Herriko Antzokian

Txuma Murugarren abeslariak Sasoi Ilunak taldearen garaia pasata, bakarka ateratzen duen laugarren diskoa, "Nire anaiaren kotxeko argiak" aurkeztuko du Elgoibarren abenduaren 17an, barixakuan, Herriko Antzokian. Sarrerak Kultur Etxean (Euskara Sailean) jarriko dira aurrez salgai, goizez. Templar & Birdy musikariek koprodukzioan egin duen diskoa Bizkaiko LRAD recording izeneko estudioan grabatu du eta labetik atera berritan dagoela entzun ahal izango dira

diskoko hamaika kantak. Disko hau urrats berri bat da Txumaren ibilbidean. 2001ean "Hegazkinen arima" diskoa kaleratu zuenetik talde finkoarekin ari da diskoetan eta zuzenekoetan. Oraingoan, ohiko musikariez gain (Rafa Rueda, gitarra; Rafa Aceves, pianoa; Natxo Beltran, bateria eta Ekaitz Hernandez, baxua) soinu elektronikoen esperimendatzen hasi da eta leku garrantzitsua izango dute hauek azken disko honetan.



Jose Mari Bastidari omenaldia

Elgoibarko Lanbide Heziketan 40 urtez jardun ondoren, Jose Mari Bastida Zabaleta, EHko Zuzendari ohia eta IMHko irakasle izandakoak berarekin bi ikastetxeetan lan egindakoekin agurbazkaria gozatu ahal izan zuen joan zen azaroaren 26an.

Bazkarian 100 lagun inguru bildu ziren eta Angel Ugarteburu bere lankide izandakoaren bertso batzuk denen artean abestu ondoren, oroigarriak eta opariak jaso zituen EHI eta IMHko lagun eta lankide izandakoen eskutik.

Mendia eta hiria uztartu zituen Morkaikoren azken irteerak

Argazki Lehiaketaren erakusketa abenduaren 10etik 18ra izango da ikusgai

Bilbo inguruko mendien edertasuna eta Zazpi kaletako giroa gozatu zituzten Morkaiko Mendizale Elkartearen irteerara joan ziren 40 lagunek joan zen zapatuan. Laudio ondoko Areta auzotik abiatu ziren eta aldapa gogor bat igo ostean, mendiz-mendi hurbildu ziren Bizkaiko hiriburura. Goikogane, Kamaraka, Genekorta eta Pagasarri mendietako tontorrak zapaldu zituzten eta handik, Bilbo hiriak eta Nervioi Ibaiaren itsasadarrak eskaintzen



duten ikuspegi zoragarriaz gozatu ahal izan zuten. Gero, Bilbo zeharkatu eta Zazpi kaleetan barna murgildu ziren

tragoxka batzuk edanez egunean gertatutakoak gogoratuz.

Argazki Lehiaketa

Bestalde, X. Argazki Lehiaketan aurkeztutako argazkiekin osatutako erakusketa abenduaren 10etik 18ra bitartean izango da ikusgai Kultur Etxeko sotoan. Astebarruan 19:00etatik 20:30era eta larunbatetan

12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara egongo dira irekita erakusketako atak.

Aritza Monasteriok web orria jarri du martxan



Peru bizi den Aritza Monasterio goimendizale elgoibartarrak web orria jarri du martxan internet sarean. Berari buruzko hainbat datu eta jakingarri aurki daitezke <http://www.andinista-adventures.com> helbidean, besteak beste: mendilerro zurian ireki dituen bide berriak, mendiko gidari gisa eskaintzen dituen zerbitzuak, Huaraz herrian ireki duen aterpetxearen ingurukoak, Peruko mendiei buruzko informazioa, e.a. Web gune nahiko osatua prestatu du Aritzak, baina tamalez erdaraz bakarrik ikus daiteke.

"Kirola Euskaraz" egitasmoaren fitxak egiteko bekaren XV. edizioa aurkeztu dute

Debarroko Udaletako Euskara eta Kirol Zerbitzuek kirol materialak euskaraz sortzeko "Kirola Euskaraz" bekaren XV. edizioa aurkeztu dute. "Kirola Euskaraz" programak Debagoiena eta Debarrenako hamabi udaletxeen laguntza du, eta bere helburua, kirola bultzatu eta kirol arloko materiala euskaraz argitaratzea da. Aurtengo emanaldirako hautatutako gaiak "Hirugarren Adineko Gimnasiarako Ariketak" eta "Uretako Gimnasia" izan dira. Hori dela eta, "Kirola Euskaraz" bekaren deialdira aurkeztzen diren lanak bi gai hauen inguruan eginak egon beharko dira. Bekak eskatzeko epea datorren urtarrilaren 30ean bukatzen da, beka bakoitza 3.000 eurokoa izango delarik. Aurkeztutako lan guztien artean bik jasoko dute beka, eta lau hilabete izango dituzte aukeraturako lanen inguruan fitxak egiteko.



Eibarren ospatutako ekitaldian pasaden urteko lan irabazleak aurkeztu ziren, Igor Olañeta eibartarraren "Gimnasioko Ziklismoa", eta Bergarako Nagore Iñurrateguiaren "Kirol Egokitua", hain zuzen ere. Kirol monitore eta irakasleek euskarazko materiala izateko asmoarekin egindako lan hauek datozen egunetan zabalduko den Durangoko Liburu eta Diskoaren azokan egongo dira salgai. Dena den, edozein herritarrek fitxa hauek lortu nahi baditu, bailarako udaletako kirol zerbitzuekin harremanetan jar daiteke.

Mikel Leon dago Elgoibarko Xake Txapelketaren buruan bi jardunaldiren ostean

Nazioarteko Xake Txapelketa abenduaren 11n hasiko da

Zubi Ondo Xake Taldeak antolatzen duen Elgoibarko Xake Txapelketa joan zen azaroaren 19an hasi zen eta bi jardunaldi ospatu ostean, Mikel Leon, iazko txapelketa, dago sailkapenaren buruan bi punturekin. Roberto Rodriguez dago 2. postuan, hau ere bi punturekin, eta Anibal Fernandez dago 3. postuan 1,5 punturekin. Guztira 13 xakelari elgoibartar ari dira parte hartzen txapelketan eta partidak barixakuetan jokatzen dira 22:00etatik aurrera Pista Beltzean elkarteak duen lokalean.



abenduaren 17ra bitartean. Parte hartuko duten jokalariren zerrenda hau da: Ivan Cheparinov (Bulgaria), Azer Mirzoev (Azerbaiyán), Horacio Saldaño (Argentina), Manuel Perez (Espainia), Jordán Ivanov (Bulgaria), Santiago Gomez (Euskadi), Mario Gomez (Euskadi), Ruben Felgaer (Euskadi), Glean Flear (Ingalaterra), Herminio Herraiz (Espainia).

Nazioarteko Xake Txapelketa

Euskadiko Xake Federazioak, Elgoibarko Kirol Patronatuak eta Zubi Ondo Xake Elkarteak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin antolatzen duten Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketa abenduaren 11n hasiko da. Partidak egunero 16:00etatik 22:00etara izango dira

Aurpegi berri gutxi Gabi saskibaloit taldean

Ligako bost partida jokatu ditu jadanik Gabi-jatetxea saskibaloit taldeak. Lehen bi partidak galdu ostean, hurrengo biak irabazi eta azkena Donostiako Alde Zaharra taldearen aurka galdu zuten 14 puntutako aldeaz. Sei talde daude elgoibartarren multzoan eta elkarren aurka jokatu ostean lehen biek lortuko dute aurrera egitea. Entrenatzaile eta jokalarit lanak bateratzen dituen Carlos Lahozek azaldu digunez, "Bostetik hiru partida galdu ostean

zaila izango dugu sailkatzea, baina aukerak ditugun bitartean ahaleginak egingo ditugu". Bestalde, jokalarit berri gutxi iritsi direla taldera aipatu digu, "bi jokalarit bakarrik dira berriak eta beste bik itzultzea erabaki dute urtebete jokatu gabe egon ondoren. Bestalde, hiru jokalarit laga dute taldea, hirurak ere bergararrak, aurtien iaz ez bezala taldea atera baitute Bergaran eta han jokatzea erabaki dute".



Argazkian goitik behera, ezkerretik hasita:
Ion Perez Cortes,
Aitor Rementeria,
Carlos Lahoz, Asier Murua, Julen San Juan, Alberto Martinez, Ramses Lahoz, Jaime Martinez, Unai Larrañaga eta Carlos Lopez.

EMAITZAK

Futbola

A. Ondarroa **2** – Haundi **2** (3. maila)
 Hernani **1** – Elgoibar **0** (1. erreg.)
 Zugatzarte **2** – Elgoibar **2** (Jub.)
 San Patricio **0** – Elgoibar **6** (Kad.)
 Eibar **5** – Elgoibar **0** (Inf. A)
 Elgoibar **1** – Zarautz **4** (Inf. B)
 Mutriku **6** – Elgoibar **1** (Neskak)
 Pedrusko **0** – Amaikak Bat **1** (1. erreg.)

Esku pilota

Lagunak **6** – Ilunpe **22** (Jub.)
 Lagunak **12** – Txapagain **22** (Jub. banaka)
 Lagunak **16** – Intxaurren **22** (Nag.)
 Ilunpe **19** – Lagunak **22** (Nag.)
 Lagunak **30** – Hernani **29** (Jub. nesk. Palaz)
 Antiguu **17** – Lagunak **22** (Kad.)

Areto futbola

Plaza Berri Sport **4** – Lanbroa **3** (1. maila)
 Toletxe Katetegia **4** – Mariaren Lagundia **2** (Jub.)

Eskubalola

Cometel Sanlo **18** – San Adrian **10** (Jub. nesk.)
 Pagoaga Sanlo **10** – San Adrian **28** (Kad. nesk.)
 Pneumax Sanlo **25** – Leizaran **12** (Jub. mut.)
 ANTT Sanlo **14** – Arrasate **12** (Sen mut.)
 Sanlo **23** – Boom **12** (Sen. nesk.)
 Ereintza **27** – Sanlo **21** (Inf. mut.)
 Urola **23** – Tecnomeca Sanlo **18** (Kad. mut.)
 Axis **27** – Tecnifuelle **36** (Sen. mut.)

Idarraga kafeak 8. saria

HAUNDIko jokalarit erregularrena 04/05
JOKALARIA **PUNTUAK**

1- J. Igartua	25
2- Javi Gomez	20
3- Navarrete	16
4- J. Arrasate	16
5- Mikel Calvo	15
6- Loren	14
7- Ibai Gonzalez	10
8- I. Oruesagasti	8
9- M. Elkoro	8
10- Iribar	8

AGENDA

Eskubalola, Kiroldegian

4, barixakua
18:00 Tecnifuelle – Urduliz (Sen. mut.)

Futbola, Mintxetan

Zapatua, 4
11:30 Elgoibar – Intxaurren (1. erreg.)
16:30 Haundi – Alaves (3. maila)
18:30 Elgoibar – San Ignacio (Jub.)
Domekia, 5
10:30 Elgoibar – Mutriku (Aleb.)
12:00 Elgoibar – Urola (Neskak f-8)



Arrasateko enpresak **arraindegirako langilea** behar du.

Erref. 162004009858

Arrasateko enpresak **mekanikoa** behar du. **Erref. 162004009585**

Oñatiko enpresak **5 galdaragile** behar ditu. **Erref. 162004010309**

Gipuzkoako enpresak **erizaina** behar du. **Erref. 162004010048**

Elgoibarko enpresak **salzaille teknika** behar du.

Erref. 162004010278

Oñatiko enpresak **lantegirako arduraduna** behar du.

Erref. 162004010306

Zarauzko enpresak **iturgina** behar du. **Erref. 162004010144**

Arrasateko enpresak **psikiatriako erizaina** behar du.

Erref. 162004010091

Zumaiaiko enpresak **soldadorea** behar du. **Erref. 162004010231**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

Lana

ESKAERA

◆ Emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Gavez ere bai. ☎ **686 10 85 52**

◆ Bi emakume garbiketa lanak egin, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **605 74 08 50 (Elfi eta Deisi)**

◆ Gizonezkoa Debabarrenean erai-kuntzan, soldadore... lanetarako prest. ☎ **661 22 51 49**

◆ Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **639 88 20 04**

◆ Emakumea orduka tabernak garbituz edo sukalde laguntzaile gisa lan egiteko prest. ☎ **647 155 908**

◆ Emakumea sukaldari laguntzaile bezala lan egiteko prest. ☎ **699 60 91 90**

◆ Emakumea orduka etxeko lanak edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **646 11 30 85**

◆ Emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. 10:30etik 17:30era, asteburak barne. ☎ **626 91 49 04**

ESKAINITZA

◆ Asteburu eta jai egunetaran gasolindegian lan egiteko pertsona behar da. ☎ **943 74 02 41**

◆ Neska bat behar da umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Egun solteak. ☎ **9443 74 18 46 (20:00etatik aurrera)**

◆ Asteburuetarako kamareroa behar da. Esperientziarekin. ☎ **670 25 04 29**

◆ Bi edo hiru neska behar dira publizitate banatzeko. Komisioekin diru asko irabazi daiteke. ☎ **606 88 00 51/943 60 33 84**

◆ Etxerako laguntzailea behar da. ☎ **619 40 92 88**

◆ Sukaldean lan egiteko jendea behar da. ☎ **943 12 12 62**

Etxebizitzak

◆ Pisia behar da alokairuan. Premiazoa. ☎ **678 117 022**

◆ Pisia hartuko genduke alokairuan, edo konpartitzeko. 70.000 pzta inguru. ☎ **677 097 015**

◆ Pisia hartuko nuke alokairuan edo etxea konpartituko nuke. ☎ **658 740 787**

◆ Etxea salgai Basarten. Bi logela, bi komun, egongela eta sukaldea. ☎ **620 549 500**

◆ Etxea salgai Errosario kalean. Bero-gailua, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **943 74 02 68/699 17 98 72**

◆ Pisia salgai Sigman. Eraberritua. Prezioa adosteko. ☎ **943 74 29 21**

◆ Etxe berria alokatzen da Mendaron. Sukaldea, egongela, bi logela, bi komun. ☎ **655 74 64 80 (gavez)**

◆ Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Ez oso handia, emakume eta ume batentzat. ☎ **600 28 27 93**

◆ Apartamentua eta txokoa salgai EAn (Bizkaia). Aukera ezin hobea. ☎ **639 47 47 39 (Manolo)**

◆ Bikoteak etxe merkea hartuko luke alokairuan. ☎ **943 74 25 75**

◆ Etxea salgai Mendaron. Altzariz jantzi berria. Dena kanpora begira. Prezioa adosteko. Aukera paregabekoa. ☎ **625 260 939/943 75 62 05**

◆ Etxebizitza salgai. Duplexa, 160m². 4 logela, 35m² egongela tximiniarekin, sukaldea, komuna. Dena kanpora. Oso lasaia. Primeran prestatua. 288.500 euro. ☎ **639 31 84 77**

◆ Pisia salgai Basarten. 74m². Garaieja erosteko aukera. ☎ **687 05 17 89**

◆ Etxea salgai San Frantzisko kalean. 67m². Bi logela, egongela, sukalde handia, komuna. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan, altzariekin. ☎ **699 29 36 13**

◆ Logela alokatzen da Sigman. ☎ **659 627 356**

◆ Pisia salgai Mendaron. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna, balkoia. 57m². ☎ **943 03 36 43/666 87 47 37**

◆ Etxea hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa. ☎ **687 11 70 22**

◆ Etxea salgai Eibarren. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Dena kanpora begira. Garaieja aukeran. ☎ **625 59 44 46**

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Salerosketak

◆ Opel Kadet 1.6 salgai. Egoera onean. 900 euro. ☎ **943 74 00 74 (gavez)**

◆ Opel Kadet 1400, salgai. Ekonomikoa. ☎ **652 77 11 94**

◆ Opel Corsa 1.200 autoa salgai. SS-W. 4 ate. 600 euro. ☎ **620 27 61 28**

◆ Orbea mendiko bizikleta salgai. Team 04 official series aluminiozko koa-droa, X fusion Glyde RC-100 amortiguadorea... berria, estreinatuta gabea. 900 euro. ☎ **658 729 032**

◆ KTM 125 motorra salgai. ☎ **696 89 60 88**

◆ Audi 100 autoa salgai. 115 zaldi. Zuria, 8 urte. ☎ **655 72 83 29**

◆ Terrenoak erosiko nituzke Elgoibarren. ☎ **670 23 52 54**

◆ Seat Toledo Magnus autoa salgai. 90 zaldi. SS-4347-AZ. ☎ **653 015 846**

◆ Play Station 1, salgai. Bi mando, memory card, joku orijinala. 70 euro. ☎ **943 74 32 96**

Garajeak

◆ Garajea alokatzen da Urbitarten. ☎ **943 74 06 88**

◆ Garajea salgai Madalatik gertu. ☎ **943 74 24 06**

◆ Garaje marraduna alokatzen da San Roken. ☎ **653 73 94 67**

◆ Garaje itxia alokatzen da Ikastolatik gertu. ☎ **943 53 16 48**


Bestelakoak

◆ Kazadora Burberrys bat azaldu da. ☎ **943 74 13 21**

◆ Siemens MC 55 mobila galdu dut. ☎ **943 74 21 39**

◆ Eraztuna galdu dut. Urre zuria eta hori kolorekoa. Ezkontza eraztuna da, sentimental. 24-4-04 data dauka grabatuta. ☎ **636 35 56 31**

Agurrak



♦ Kaixo **potxolo!** Gelako txikieta eta jadanik urte bete, ondo igaro urtebetetze eguna. Zorionak ikastolako laguntxoaren partez.



♦ Zorionak **losu**, azaroaren 30ean zure eguna izan zelako. Familiakoen eta bereziki, Ainhoa eta Joseba lehengusuen partez.



♦ Zorionak **Ekain**, azaroaren 30ean urtebete egin zenuelako. Aita, ama eta familiakoen partez.



♦ Zorionak **Aitor**, gaur, abenduak 3, 12 urte egin dituzulako. Ibonen eta familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Narrea**, abenduaren 10ean urtebete egingo duzulako. Patxito haundi bat Amatxi, tia, tio, aitatxo eta amatxoren partez.



♦ Zorionak **Iker Nieblari**, gaur, abenduak 3, 5 urte bete zituelako. Anaia eta familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Jon**, 5 urte egin dituzulako. Etxekoen, eta bereziki, anaia Rokeren partez.



♦ Zorionak **Iñigo**, gaur 6 urte egin dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Noraren partez.



♦ Zorionak **Sandrari**, abenduaren 1ean, urteak bete zituelako. Senar eta alabaren partez.



♦ Zorionak **Anton!** Orain Donostia, gero Paris. Zortetik onena opa dizugu, artista!



♦ Zorionak **Nahia!!!** Bat, bi, hiru eta lau! Noiz etorriko zera Elgoibarrera? Lau kandelak piztu eta zorionak kantatzeko desiatzen gaude. Aitxitxa, amama eta tio.



♦ Zorionak **Ander**, hilaren 9an, 12 urte beteko dituzulako. Kristian, Garazi eta familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Gorka**, hilaren 6an, bi urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez.



♦ Zorionak eta muxu potolo bat gure etxeko **Jolabitari**, bere 3. urtebetetzean. Etxeko guztien, eta bereziki, Ane, Nora eta Andrearen partez.



♦ Zorionak **Ibon**, abenduaren 6an, 6 urte egingo dituzulako. Zure familiakoen partez.



♦ Abenduaren 3an eta 4an, 8 eta 9! Mutil handiak ein zarie benetan! Muxu handi honekin hasten da mendekua, **jodios!**



♦ **Idoia** eta **Gotzon**, zorionak zuen ezkontza egunean, eta horren alaitsu eta maitakor jarraitu ezazue beti!!! Mendaroko koadrilakoen partez. Idoooo!!! Muxu bi.



♦ Zorionak **Naiara** eta **Ander Bañuelos**. Zorionak zuen egunean Elgoibarko familiakoen partez.

AISIALDI TXOKOA

AbENDUA



AtxutxiamaiKa
AISIALDI TALDEA

NEGULEKUAK

ABENDUAK 27-28-29-30/URTARRILAK 3-4-7

10:00-13:00 Herri Eskola

HH- Prezioa 25 euro

Izena emateko epea: abenduak 9-17

TAILERRAK eta EIBARKO TXIKI PARK-era

ABENDUAK 27-28

27 - 10:30 Plaza Txikian, TAILERRA

28 - 10:00 Tren geltokian, IRTEERA

LH 1 eta 2- Prezioa 10 euro

Izena emateko epea: abenduak 9-17

TAILERRAK eta BILBOKO ITSAS MUSEORa

URTARRILAK 3-4

3 -10:30 Plaza Txikian, TAILERRA

4 -10:00 Tren geltokian, IRTEERA

LH 3 eta 4- Prezioa 12 euro

Izena emateko epea: abenduak 9-22

TAILERRAK eta BILBOKO PIN PARKEra

URTARRILAK 3-4

3 -10:30 Plaza Txikian, TAILERRA

4 -10:00 Tren geltokian, IRTEERA

LH 5 eta 6- Prezioa 15 euro

Izena emateko epea: abenduak 9-22

GAZ-T

AISIALDI TALDEA

BILBOKO PIN PARKERA

URTARRILAK 3

10:30 Tren Geltokian

DBH - Prezioa 12 euro

Izena emateko epea: abenduak 9-22

OLENTZERA

ABENDUAK 24

10:45 Maalan

Antolatzaileak: AtxutxiamaiKa eta Gaz-t

Informazio gehiago

Tel: 943 74 16 26 (Nerea Oñederra)

E-posta: nerea@elgoibarkoizarra.com

3 BARIXAKUA

22:15 ANTZERKIA

Antzezlanak: "Zapaldu marra"

Taldea: Pikor Teatroa

Herriko Antzokian

Errotatxo Elkartearekin elkarlanean

19:00 TORIBIOREN ESKULTURA
ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Kultur Etxeko erakusketa gelan

Abenduaren 12ra arte

10 BARIXAKUA

19:00 MORKAIKO MENDIZALE

ELKARTEAREN ARGAZKI

ERAKUSKETA

Kultur Etxeko sotoan

Abenduaren 18ra arte

Antolatzailea: Morkaiko Mendizale

Elkartea

11 ZAPATUA

11:00 XVIII. JAIOTZA

LEHIAKETARAKO IZEN EMATEA

Parrokiako lokaletan (Trenbide aldeko sarreratik)

12:00 XIV. NAZIOARTEKO XAKE
TXAPELKETAREN AURKEZPENA

Kultur Etxean

16:00 XIV. NAZIOARTEKO XAKE

TXAPELKETAKO PARTIDEN

HASIERA

Kultur Etxean

12 DOMEKIA

11:00 XVIII. JAIOTZA

LEHIAKETAREN ERAKUSKETA

Parrokiako arkupeetan

17 BARIXAKUA

20:00 "JAIOTZAREN 25.

URTEURRENA" ERAKUSKETAREN
INAUGURAZIOA

Kultur Etxeko erakusketa gelan

Antolatzailea: Elgojaitza

Urtarrilaren 17ra arte

20:00 XIV. NAZIOARTEKO XAKE
TXAPELKETAREN SARI BANAKETA

Kultur Etxean

22:15 KONTZERTUA

Abeslaria: Txuma Murugarren

"Nire anaiaren kotxeko argiak" diskaren aurkezpena

Herriko Antzokian

Oharra

Abenduaren 10ean eta 17an ez dugu BARRENik kaleratuko. BARRENeke lantaldeak zubia egingo du, eta gero Gabonetako ale berezia prestatzeari ekingo dio. Hurrengo alea beraz, abenduaren 24an jasoko duzue.

19 DOMEKIA

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN
GABONETAKO KONTZERTUA

Herriko Antzokian

20 ASTELEHENA

19:00 "SABIN OREGIREN
JAIOTZAK" ERAKUSKETAREN
INAUGURAZIOA

Kultur Etxeko sotoan

Urtarrilaren 9ra arte

20:00 PARROKIAKO JAIOTZA

LIBURUAREN AURKEZPENA

Udaletxeko Pleno Aretoan

20:30 PARROKIAKO JAIOTZAREN
INAUGURAZIOA

Antolatzailea: Elgojaitza

21 MARTITZENA

14:15 IKASTOLAKO JAIALDIA

DBH.ko ikasleen jaialdia

Herriko Antzokian

22 EGUAZTENA

20:00 MUSIKA ESKOLAKO

IKASLEEN GABONETAKO
KONTZERTUA

San Bartolome parrokiari

23 EGUENA

22:15 GABONETAKO BERTSOLARI
JAIALDIA

Herriko Antzokian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

24 BARIXAKUA

10:45 OLENTZERA

Madalan

Antolatzaileak: AtxutxiamaiKa eta Gaz-t

18:00 PARROKIAKO

ABESBATZAREN KALEJIRA

19:15 UDAL MUSIKA BANDAREN
KALEJIRA

IKASTAROAK

Elgoibarko euskara

Udaberrian hasi ziren Elgoibarko Berbetia ikastaroarekin. Orduan, zapatuetan eman zuten eta 24 lagunek hartu zuten parte. Orain, berriz, ikastaroa aste barruan egin nahi dutenei eskainiko zaie aukera. Ikastaroan Elgoibarko euskararen berri eman nahi da, arloz arlo. Ez da ikastaro klasiko bat bakarrik izango: eztabaidagune izatea ere nahiko luke, informazio truke baterako aukera (ikastaro emailearen eta hartzaileen arteko trukea, alegia). Jesus Mari Makazaga, filologoa eta EHUko irakaslea arduratuko da ikastaroa emateaz urtarrilaren 19tik otsailaren 28ra. Guztira 24 orduko ikastaroa izango da, astelehen eta asteazkenetan 19:00etatik 21:00etara edo 18:30etik 20:30era (taldeak erabakitzekotan) Aita Agirre eskolazaharrean. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 13a izango da eta 20 euro ordaindu beharko dira (ikasle eta langabetuek 10 euro). Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen eman daiteke izena.

IKUSKIZUNAK

“Cocidito Madrileño”

Glu Glu Produkzioak antzerki taldeak “Cocidito Madrileño” antzezlan eskainiko du urtarrilaren 14an Herriko Antzokian. Ikuskizun arrakastatsu hau ikusteko sarrerak aurrez salduko dira Kultur Etxean, goizez, 8,50 euroren truke.

“Zapaldu marra”

Pikor Teatro taldeak “Zapaldu marra” antzezlan taularatuko du gaur, hilak 3, Herriko Antzokian 22:15etik aurrera. Skecht-en bidez eta modu dibertigarrian gazteen artean ohikoak diren egoerak antzeztuko dituzte lau aktorek: droga lehenengo aldiz probatzea, lagunartean presioa modako drogak kontsumitzerakoan edota araua haustearen eszitazioa eta beldurra. Helburu jakin bat du antzezlana honek: norberaren ardura eta zentzu kritikoa drogomenpekotasunaren prebentziorako politika eraginkor baterantz bideratzea, alegia.



zine

KARTELDEGIA

ELGOIBAR,

Herriko Antzokian

“Crimen Ferpecto”

4, zapatua: 19:30-22:15

5, domekia: 19:30-22:15

“El Exorcista: El comienzo”

6, astelehena: 19:30-22:15

7, martitzena: 22:15

8, eguzkena: 19:30-22:15

“Mar adentro”

10, barixakua: 22:15

11, zapatua: 19:30-22:15

12, domekia: 19:30-22:15

“Doraemon Gladiadora”

(euskaraz)

12, domekia: 16:30

“Diarios de motocicleta”

18, zapatua: 19:30-22:15

19, domekia: 19:30-22:15

20, astelehena: 22:15

“El espantatiburones”

19, igandea: 16:30

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



“Crimen Ferpecto”

Zuzendaria: Álex De La Iglesia.

Antzezleak: Guillermo Toledo, Monica Cervera, Kira Miró.

Rafael (Guillermo Toledo) erostetxe handi bateko emakumeentzako saileko saltzailea da. Dotorea, ligoia eta saltzaile petoa, sekzio buru izatea nahi du. Postua, ordea, Antoniok eskuratuko du, gizonezkoentzako saileko saltzaile beteranoak. Bien arteko eztabaida baten ondorioz Rafaelek Antonio hilko du nahigabe. Lourdesek, sekzioko emakumerik zatarrenak, hilketaren berri izango du eta txantajea egingo dio Rafaeli. Berarekin oheratzera derrigortuko du krimena ixilpean mantentzearen trukean.

ZINEA



A

ste honetako erretratu zaharra herritar batek laga digu. 1963. urteko Santa Luzia Egunean ateratakoa da, eta bertan, elgoibartar emakume talde bat ikusten da jostunen eguna ospatzen Barrutianeko jatetxe ospetsuan. Santa Luzia Egunean tabernak emakumez beteta egoten ziren. Argazki honetan ere ikusten dugu atzeko aldean beste emakume koadrila bat dagoela. Garai desberdinak ziren haiek. Ordu hartan emakume guztiek hartzen zuten jantziak egiteko jostorratza. Gaur egun, gutxiago diren arren, oraindik ere mantentzen da Santa Luzia Eguna ospatzeko tradizioa.

Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkian ageri diren emakume hauek:

Ezkerretik eskumara: **Mari Kruz Zuloaga, Kontxa Azkue, Mari Kruz Arrillaga, Antonia Gabilondo, Juanita Barrutia** (jatekxoa), **Rosa Unzueta** eta **Maria Arriola** (†).



ESKERTZA

2004ko azaroaren 24an, 84 urte zituela hil zen,
JOSE MANUEL GURRUTXAGA LIZARRALDEren
emaztea, seme-alabak eta gainerako sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

2003ko abenduaren 3an, 84 urte zituela hil zen
JOSEFA SORALUZE ARRIOLAren oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Madalako elizan
larunbatean, hilak 4, arratsaldeko 20:00etan.
Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.



Txuma Murugarren

Abenduak 17, ostirala
Gaueko 22:15ean
HERRIKO ANTZOKIAN



"NIRE ANAIAREN KOTXEKO ARGIAK"
diskoaren aurkezpena



Sarrerak aurrez salgai Kultur Etxean (Euskara Sailean) goizez



Euskara
Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Eusko
Jaurlaritzak

HARZUBI JATETXEA

SANTA LUZIAKO MENUA
abenduak 10 eta 11



- * Urdaiazpiko iberikoa
 - * Zainzuriak 2 saltsekin
 - * Baratxuri freskoa eta perretxikoen nahastura
 - * Bieira labean
 - * 1/2 rapea erreta
 - * Txuletoia zatituta
 - * Etxeko postrea
- (Ogia, etxeko ardoa, ura eta kafea)


Abenduak 10, ostinala
STREETEASE

Abenduak 11, larunbata
DRAG QUEEN-a

Olaso Industrialdea · Olasope, 2 · Tel. 943 74 12 44 · 20870 ELGOIBAR · (Gipuzkoa)

ABENDUAK 11

goizeko 9etatik eguerdiko 2etara



AZOKA

